

Ainize Madariaga Baiona

Nerea Loiola Pikazaren (Deba, Gipuzkoa, 1985) lehen ipuin bilduma hautatu du BERRIAKO irakurleek urteko libururik hobereena: *Epizentroa* (Erein, 2021). Zazpi ipuinek ez dute zerikusirik beren artean, baina erran daiteke ama beraren alabak direla denak: diafragmatik erdi direlako; «emozioen epizentrotik», hots.

Epizentroa izan da BERRIAko kulturazaleen maitatuena, iaz.

Opari bat izan da, ezusteko bat. Zer gehiago eskatu liburu bati, irakurleak maitatzea baino? Egile potenteen artean nirea hautatzea opari bat da, eta eskertzen dut. Gainera, *feedback* handia ukan dut; beraz, hau izan da pastelaren gaineko gerezia. Liburuak ukan duen harrera ona sorpresa izan da, ez bainuen ezer espero.

Zure epizentrotik idaztearen eta hori kanporatzearen arteko arteka nola bizi duzu?

Bi lan oso ezberdin dira. Idazketa prozesu guziak izan dira oso nire lurrikara, nire kezka eta kontraesanetako lokatzetan mugituz, oso garrantzitsuak niretzat. Idazketa prozesua bukatuta, orain ez naiz ni; plazara baitoa, besteek irakurtzera. Ariketa horrek eramaten zaitu amildegi ertzera, bertigoa izateraino. Nahi baituzu maitatua izan dadin, eta, aldi berean, zure erraiak erakutsiz, zaurgarri agertzen zara.

Ez zara hutsetik abiatu, baitituzu bi liburu gazteagoentzat.

Unean unekoari heldu diot. *Harri bat poltsikoan* [Erein, 2018] idaztean aktibatu ziren idazteak sortzen zizkidan plazerezko sentsazio batzuk. Eta, makineria mar txan ezartzen duzularik, ez da gelditzen: beste bat zetorren. Azken *Lanhütarra* idaztean ere asko gozatu nuen; bitartean, beste istorio batzuk bururatu zitzaizkidan, baina neure buruari kontatzeko, eta, gero, beste jende helduari.

Zein da idazteak sortzen dizun sentsazio hori?

Oso estimulagarria zait, eta, sentsazio pleno bat edukitzeko, horren beharra dut. Neure buruarentzako etengabeko desafioa, euforia, adrenalina eta bertigo hori gustatzen zaizkit. Bestalde, idazteak ematen dit aukera neure buruaren baitan sartzeko. Eta, kanpora begirako gure bizimodu azeleratu hauetan, gelditzeko parada ere ematen dit. Sentsazioa dut aldatu egin naizela liburuak egin ondotik; beharbada ez dut ezer konpondu, eta kontraesanak hor daude oraindik, baina behintzat lortu dut haztea. Gauzak er-



BOB EDMÉ

«Liburuarekin lortu dut haztea»

Nerea Loiola Pikaza • Idazlea

Loiola, bere baitatik ilki, eta, pertsonaien baimenez, haien epizentroan murgiltzen da, haien soa bahitzeko. Ariketa horrekin aldatu zaizkio idazleari ere koordinatuak, 'Epizentroa' ipuin bilduma idatzi duenetik, batez ere.

dian jarri eta inguratzen dituzu, zure eta besteen begiradetatik so eginez. Beste leku batetik ikusten ditut gauzak orain. Idazteak, beste ezerk ez dit hori ematen.

Paloma Rodriguezek izkiriatu du idazteko mekanismoak kontrolatzen dituzula.

Baieztazen duena nik galdetu egiten dut. Intuizioz egin dut liburu; hainbat mekanismo eta egitura probatu egin ditut. Ingeniaria naiz, eta beti dago eskema edo patroia; idaztean, berriz, ez: beti deskubritu behar dut zer eta nola. **Zer ariketa egin duzu pertsonaien baitan sartzeko, Lili, Saioa, Bea...?**

Niretzat ariketarik zailena eta politena da, nire baitatik atera, eta gauzak beste begirada eta gorputz batzuetatik aztertzea. Pertsonaiei neure burua aurkezten nien, eta elkar ezagutu dugu. Nor da Saioa? Haren gorputzean eta buruan sartzen saiatu naiz. Apasionaga-

ria egiten zait hori, nahiz energia eta arreta pila bat eskatzen duen. Oso bisuala naiz, eta irudikatzeak asko laguntzen dit pertsonaiaren barnera iristeko: nola mugitzen den eta portatzen den kanpotik; nola helduko liokeen edalontziari; hartuko lukeen kafe bat basoan edo kikara batean... Askotan, detaile txiki horiek laguntzen didate barrukoari begiratzen.

«Ariketarik zailena eta politena zait gauzak ikertzea, nire baitatik atera eta pertsonaien gorputz eta buruetan sartzea»

Detalle horiek kausitzeko, baduzuia edonorako kaierik?

Bai, behaketa lana da: batzuetan, nabarmenegi ere egoten naiz norbaiti begira!

Zeri, adibidez?

Zarauzko hondartzari begira nengoela, udazkeneko egun hotz batez, neure burua harrapatu

nuen hitzak jartzen saiatzen paseoan zebilen amona batek hondarra ukitzen zueneko pauso horiei. Apuntatu nuen, iruditu baitzitzaidan irudi oso polita zela: prakak altxatuak, oin heldu baina barizerik gabekoak ziren, oso ederrak, lirainak. Deskribapen fisiko horrek eramaten nau galdetzera nor zen emakume hori...

Oihana Aranak erran du «barrena astintzen duten lurrikaratxoak» batu dituzula. Zazpi ipuinak zure lurrikara jakin baitetik abiatu dituzua?

Sentsazio edota irudi batetik abiatu dira. Adibidez, *Itsaso zuria* ipuinerako, udazkeneko egun hotz batean irudikatu nuen emakume bat uretara biluzik sartzeko. Hasieran arreta zergatian jarri bannuen, gero berdin zuen zergatik, hau zen galdera: «Eta orain zer? Familia?»

Cuisine et Sante etxe makrobiotikoa izan da liburuaren beraren abiapuntua.

Saint Gaudenseko [Okzitania] etxe horretan ikusi eta behatu nuen Maxime izan zitekeen gizon xelebrea: bere hitz egiteko modua, mintzatuko nintzaionez...

Osagarria zaintzeko guneari pozoia sartu diozu.

Kur-kur. *Maxime*-ri eman behar nion istorioaren tempo eta erritmoa hautsiko zuen zerbait estrabagantea: pozoia izan zen.

Sexu eszena gordinak, estereotipoen ezusteko hausteak... Exit ipuina zer sentsazioetatik partitu zen?

Beste ipuinetan ez bezala, ez dakit esplikatzen. Baneukan barruan idatzi beharreko zerbait, jakin gabe zer. Ia dena atera zitzaidan jarraian. Bukatu, eta ez nekien zer zen. Oso gauza bitxia izan zen. Beste ipuinetan gauzak aurretik asko pentsatuak ziren; honetan, ez. Feminismoaren inguruan bide bat egin dut, eta egiten ari naiz, kontraesan pila bat ditut, eta mahai gainean jarri nahi nituen. Uste dut hortik mugitu zaidala istorio hau. Kontraesanez betetako ipuina da, neure buruarekiko, sexualitatearekiko eta feminismoarekiko nire jarreraren ispilua da, nire kezka eta kontraesan guztiek.

Epizentroa: liburuaren epizentroa.

«Diafragma da erraietako emozioen epizentroa» idaztean, ikusi nuen *epizentroa* izaneri zela ipuinaren eta liburuaren izenburua. Hitz bakarra da, itzela, guztia biltzen duena. Aukera ematen zidan lexiko aldetik jolasteko ere: lurrikarak, dardarak, oso iradokitzaile iruditu zitzaidan.

Hiztegia pixka bat urrundu duzu zure epizentro naturalerik.

Istorioak toki batean kokatzen ez baditut ere, pertsonaiak bai, eta irudikatzen ditut nongoak diren, araberako hiztegia ere badute. Frikismotik ere badu; Plazido Muxikaren hiztegitik hartzen ditut hitz ezberdin asko; oso intuitiboak eta ulergarriak dira.

Espainolezko bertsioa aterako da udaberrian.

Irati Iturrizta poeta eta itzultzailea dabil horretan. Erein argitaletxeak proposatu zidan, eta poza eman; beste errepidetxo bat zabalitzen zaiolako liburuari, eta beste goraldi bat euskarazkoari.

Zer proiektu dituzu?

Gazteentzako nobela bat idazten ari naiz. Bestalde, Jon Aranguren eta biok album ilustratu bat egiten ari gara. Eta norberak aukeratu beharreko abenturak idazten ari naiz gaztetxoentzat. Azkenik, enkargatu didate gazteentzako nobela digital bat ere.